

EGOIAZIA 02 KOADERNOA:

INGURUMEN KUDEAKETA ADOSTUA ETA ANTOLATUA ALTO PIURAREN KORRIDOREAN, PERU

Alto Piurako korridorearen hiru barrutiko (Canchaque, San Miguel del Faique eta Salitral) biztanleen garapen aukerak mugatzen dituen pobrezia-aren aurrean, **Egoaiziak “Politika publikoen kudeaketa adostua eta egituratua, Alto Piurako korridorearen barrutietan lurralde arrakalak murrizteko”** proiektua garatzen du, **Centro de Investigación y Promoción del Campesinado-CIPCA** erakundearekin batera.

Proiektuak barrutien garapena eraikitzen laguntzen du, eragileen parte hartze aktiboaren bidez, lurraldetasun eta genero berdintasun ikuspegi batez, eta hezkuntzari, haurren lehen arretari eta ingurumenaren kudeaketari lotutako politika publikoen ezarpena lehenesten du.

Ingurumenaren kudeaketa egoki baterako, kalitate egokia lortu nahi da ur eta saneamendu zerbitzuan eta hondakin solidoen kudeaketan, osasun baldintzak hobetze aldera, ingurumenarekiko harmonian.



ADOSTASUN ESPAZIOAK INDARTZEA

Egoera osasungaitz horri aurre egiteko eta ingurumenaren kudeaketari ekiteko, **egituratze espazio kolektiboen** sorrera bultzatzen dugu, ingurumen politika publikoak ezartzeko.

Gobernu zentralak adostasun espazio horien sorrera bultzatzen du, eta proiektuaren barrutietan instantzia horiek sortu dira, baina oraindik zailtasunak eta gaitasun gabeziak dituzte, funtzionamendu egoki bat izateko.

Horretarako, haien berregituraketa bultzatu da, eta aholkularitza eman zaie **Udal Ingurumen Batzordeko** (CAM, Comisión Ambiental Municipal) kideei eta ur eta saneamendu zerbitzuak kudeatzeko **Udal Arlo Teknikoko** (ATM Área Técnica Municipal) funtzionarioei, **ingurumena kudeatzeko tresnak** egin ditzaten, eta herri erakundeetako eta erakunde publikoetako ordezkariak eta udal agintariak ekimenean parte hartu dute.

Kudeaketa adostua bultzatzen da, eta herritarrei **ur segurua** hornitzeari eta **hondakin solidoak egoki kudeatzeari** lotutako ingurumen politikak inplementatzen dira, komunitate osasuntsuen eta garbien kultura sortuz.

Tokiko eragileak bultzatzen ditugu Barrutietako Garapen Adostuko Planetan **klima aldaketara egokitzeko osagaiak** sar ditzaten: ingurumen kudeaketarako tresnak eta eragiketa planak. Horrela, klima aldaketaren aurrean, barrutien kalteberatasuna eta inpaktu negatiboa murriztu nahi dugu, bereziki “El Niño” fenomenoari erreparatuta.

Emakumeen parte hartzea bultzatzen da CAMen, eta udal agintarien eta funtzionarioen gaitasunak indartzen ari dira Garapen Adostuko Planak eguneratzeko eta/edo ezartzeko prozesuan, **genero arrakala aintzat hartuko duten politikak egin ditzaten**.

HERRI ERAKUNDEAK INDARTZEA

Ur eta saneamendu zerbitzuen kudeaketan aholkularitza eta laguntza ematen dugu, Saneamenduko Zerbitzuen Administrazio Batzarrei (JASS) administrazioan, eragiketan eta mantentze lanetan **aholkularitza tekniko**a eskaintzeko, **ur eta saneamendu zerbitzuen jasangarritasuna** ziurtatze aldera.

Horri begira, hainbat jarduera garatzen dira:

- **Tokiko Ingurumen Kudeaketarako tresnak** egitea: ur eta saneamendu zerbitzuen erabiltzaileen errolda, akten liburuak, kutxa erregistroak eta sistemen mantentze lanetarako eskuliburuak.
- **JASSen ordezkariari laguntza** ematea, beren karguei dagozkien rolak eta zereginak ongi bete ditzaten.
- **Ur eta saneamendu zerbitzuak** ingurumenarekin harmonian egoki erabiltzeari buruzko trebakuntza ematea.
- **Ura kloratzeko sistemak instalatzea**.
- Ura kloratzeko eta banatzeko sistemen eragiketa eta **mantentze lanen prozedurak optimizatzea**.

Emakumeen parte hartzea bultzatzen da prestakuntza prozesuetan. Trebakuntza eta aholkularitza emateko ongien heldu zaizkien egunak eta ordutegiak hautatzen ditugu, aparteko karga bat izan ez dadin.



KOMUNITATEA SENTSIBILIZA- TZEA

Proiektua hasi zenean, herritarrek ez zituzten lotzen beren ekintzen inpaktu negatiboak ingurumenaren hondamenarekin eta horrek osasunean duen eragin kaltegarriarekin. Ingurumenaren eta hondakin solidoen kudeaketaren garrantziaz komunitatea sentsibilizatzeko eta trebatzeko hainbat jarduera egiten dira:

- **Ingurumenaz sentsibilizatzeko kanpaina** eta landa ingurunea garbitzeko jardunaldiak, bereziki zaborra botatzen duten lekuetan.



- **Ingurumen kudeaketaren garrantziari buruzko trebakuntza tailerrak** komunitateentzat eta familientzat, hondakin solidoen bilketan eta bereizketan haien inplikazioa bilatuz.
- **Sustatzaileen prestakuntza**: komunitateetako familiei laguntzeko bisitak egiten dituzte maiz, hondakin solidoen kudeaketa egokiaren inguruko jarraipena egiteko.
- **Familia sustatzaileen prestakuntza**, gero landa eremuetako birziklatze ekimenetan komunitatearentzako eredu bihurtzen direnak. Familia horiek beren ezagutzak partekatzen dituzte, eta sustatzaileen akonpainamendua indartzen dute, gainerako familiei egindako bisitetan.
- **Ingurumen tailerrak ikastetxeetan**, belaunaldi berriek natura baliabideak kudeatzeko eredu berriak eta hondakin solidoak tratatzeko moduak ezagut ditzaten.

HONDAKIN SOLIDOAK KUDEATZEKO HERRI SISTEMA

Hondakin solidoak kudeatzeko sistema baten gabeziatik eratorritako kutsadura arazoaren aurrean, **hondakin solidoak biltzeko eta bereizteko** hainbat esperientzia egin dira, lurraldeko eragileak inplikatu:

- Herri agintariak eta, oro har, herritarrak trebatzea, **hondakin solidoen kudeaketa egokian**.
- **Etxean hondakinak bereizteko** bitartekoak ematea (hainbat koloretako zakuak hondakin bakoitza nora eramaten den jakiteko).
- **Hondakinak saltzea** tokiko birziklatzaileei, gero horiek biltzeko puntuetan berriz saldu ditzaten.
- **Materialen berrerabilera**, erabilgarri egon daitezen denbora gehiagoz.
- **6 osasun zanga eraikitzea**, beste ezertarako erabili ezin diren hondakinak botatzeko. Ingurumen inpaktu gutxiko lekuak aukeratzen dira, eta, horrela, zaborra modu kontrolatuan uzten da, erreken eta natura inguruneen kutsadura saihestuz. Haren neurriak hauek dira: 5 metro luze, 3 metro zabal eta 1,5 metro sakon.

Hondakin solidoak kudeatzeko herri sistema familiarra izatea bultzatzen da, gizonak eta emakumeak inplikatu daitezen eta hondakin solidoak biltzeko eta bereizteko jarduerak ezar ditzaten. Horrela, komunitate osasuntsuen eta garbien kultura bat lortzen da.

Ingurumen kudeaketa prozesu bat da, lurralde bateko eragileen denbora eta konpromisoa eskatzen duena; bereziki garrantzitsua da pertsona kalteberenen parte hartzea. Nolanahi ere, Alto Piurako korridorean azken urteetan izandako lorpenak garrantzitsuak izan dira hainbat mailatan.



JASSen barruan kudeaketa tresnen erabilera normalizatzea lortu da:

- % 100ek erabiltzaileen errolda erabiltzen dute.
- % 86k akten liburua aplikatzen dute.
- % 73k bilketen liburua aplikatzen dute.
- % 82k kutxa liburua aplikatzen dute.
- % 73k eragiketen eta mantentzeen eskuliburua aplikatzen dute.



Uraren kalitatea hobetu da: % 67k (12 guztira lehenetsitako 18 JASSen artean) ura kontsumorako egokia dela ziurtatzeko gutxieneko parametroak betetzen ditu, ez baitira agertzen koliforme termotoleranteak eta/edo koliforme fekalak.

Ur sistemak garbitzeko eta mantentzeko jarduerak hobetu dira:

- JASSen % 68,2k ongi erabiltzen dute ura biltzeko, eramateko eta banatzeko azpiegitura.
- JASSen % 81,2k ongi erabiltzen dituzte kloratze ekipok.

Hondakin solidoen kudeaketak nabarmen egin du hobera, eta herritarren inplikazioa eta konpromisoa areagotu da.

- Baserrietako familien % 75ek ongi kudeatzen dituzte hondakin solidoak (bereiztea, birziklatzea, komertzializatzea eta uztea).
- Zaborraren erreketak % 33tik % 6,7ra murriztu da.
- % 70,4k hondakin solido organikoak eta birziklatu beharrekoak bereizten ditu (240).

Hondakin Solidoak Kudeatzeko Herri Sistemak espero ez ziren eraginak izan ditu, esate baterako, esperientzia errepikatu da Morropón probintziaren beste barruti batzuetan.

Horren guztiaren eraginez, **esku-aldeko kutsadura nabarmen murriztu da**, eta haren iraunkor-tasuna denboran bermatuta dago.





GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK



Proiektuarekin lortutako eraginek Nazio Batuen 2030 Agendako Garapen Iraunkorreko Helburuak (GIH) betetzen lagundu dute; hain zuzen ere, honako helburu hauek nabarmenduko ditugu:

3. eta 6. GIH: Ur segurua oinarritzko premiak betetzeko adina lortzeko aukera izatea da osasuntsu egoteko baldintzetako bat. Ura desinfektatzeak eta saneamenduarekin lotutako jardunbide egokiak gaixotasunak eta kutsadura saihesten dituzte.

5. GIH: Emakumeek erakunde komunaletan eta udaletan ordezkartzea eta parte-hartze handiagoa izango dutela bermatzea lagungarri da genero arrakalei aurre egiteko lehentasunezko politikak xertatzeko.

11. GIH: Hondakinen kudeaketan komunitate osoa inplikatzeko hondakin askoz ere gutxiago sortzea

eragiten du, prebentzioko, murrizketako, birziklatzeko eta berrerabiltzeko jardueren bitartez.

13. GIH: erakunde publiko eta pribatuei emandako aholkularitzaren bitartez, klima aldaketarekin eta garapen iraunkorarekin lotutako plangintza eta kudeaketa eraginkorrerako gaitasuna areagotzen duten mekanismoak sustatzen dira.

15. GIH: hondakinen kudeaketa egokia eginez gero, lurreko ekosistemak, ur gezako barne ekosistemak eta eskaintzen dituzten zerbitzuak leheneratu eta modu iraunkorrean erabil daitezke, batik bat, basoak eta ibaiak.

17. GIH: komunitateek eta udal gobernuek partekatzen dituzten helburuak eraiki eta koordinatzea funtsezkoa da Corredor del Alto Piura eskualdearen garapen sozioekonomikoan urrats sendoak egiteko aurrera, modu iraunkorrean.



“Pobreziaren aurkako borrokan ingurumenaren kudeaketa esperientzien bitartez Gipuzkoako gizartea eraldatzeko. 2. Fasea” (GFA 2019 ERAL 016/01) proiektuaren hezkuntza materiala. Zabalketa Elkartek eta Tau Fundazioak koordinatutako proiektua, Gipuzkoako Foru Aldundiak kofinantzatuta **“Pobreziaren Aurkako Ingurumen Iraunkortasunaren Nazioarteko Sarearen”** elkarlanaren esparruan.

Egileak: Egoaizia eta Zabalketa Elkartea

Argazkiak: Egoaizia

Diseinua eta maketazioa: ad hoc Komunikazioa eta Marketina

D.L. SS-691-2019

Egoaiziaren eta Zabalketaren webguneetan eskuragarri gazteleraz eta euskaraz.

www.egoaizia.org www.zabalketa.org

